

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

## Askatasuna datorrela!

**E**z naiz erretzailea. Orain hogeita hamar urte utzi nion, eta kuttunak erretzen duen arren, ez dit, egia esan, batere molestutzen. Joan den astean, ordea, gai honi buruz estatu legegileak hartu duen jokaera ikusiz, hainbat zalantza izan dut.

Egia da gure kontratu sozialak –jaiotzen garenean ezer jakin gabe, eta abokatu gabe sinatzen dugun kontratu ikusezin horrek–, estatuaren babes hori, hartzen ari den itxura hertsia egiten edo, gero eta jasangaitzagoa egiten zait.

Ilustrazioaren ondorio, boterean jarraitu ahal izateko, estatuaren jardura zuritzeari ekin ziotenak –ikusiaz boterea jainkoarengatik zetorrela esateak barrea ere ez zuela jada eragiten–, legearen onarpenera aukeratu zuten ordezkaririk gisa.

Hortik aurrera, zuzenbidea jainkotiar bihurtu zuten, eta legeari buruzko mirespena hain da handia, ezen eremu guzti-guztiak legearen menpe jarri nahi dituztela. Hemen dena erregulatu egin behar da (merkatu ekonomia izan ezik, jakina), dena legearen menpe jarri, legeak neutroak, berezkoak edo denon artean egindakoak bailiran.

Eta dagoeneko, pozoia den tabakoa –harri-



DANI BLANCO

tzekoa!– saltzen uzten duten arren, ezin dugu erre, lehengoaz gain, ez parkeetan, ez eremu itxietan, ez umeen aurrean.

Baina erregularizazio zaletasun horrek ez du akaburik (ez dut gizartearekiko kontrol politiko eta sozialik aipatuko oraingoan). Bakar bakarrik norberaren eremuan, jada ezin dugu kolesterol pixka bat ere eduki, ez eta transaminasetan asteriskorik; ezin dugu kariesdun hortz bat izan, ezin dugu griperik hartu, ez behintzat bajarik.

Ezin dugu edozer jan, ezin garela-lodikoteak izan, ezta argalegiak ere; ezin dugu edozer edan, eta ezin dugu edariek ere egon eremu irekietan. Ezin dugu malenkoniatsu egon, beti pozik baizik, eta ezin dugu bazkalostean silloian erdi etzanda egon, paseatzen edo kirola egiten baizik.

Ezin dugu kalean, espaloitik ez bada, ibili, ez eta aparkalekutik kanpo, oztoporik eragiten ez badugu ere, kotxerik utzi; ezin diogu haurrari izenik jarri, izendegian agertzen ez bada; ezin dugu kalefakziorik nahi

beste ordu piztu, energia xahutzen dugulako, eta urarekin ere, guk hemen sobera dugun urarekin –urria izango balitz bezala ikusarazi digutenez–, errudun sentitzen gara galtzen uzten badugu.

Hau al da askatasuna?

Ez deritzozue Aita Estatua gutaz gehiegi arduratzen dela... batzuetan? ■

Ilustrazioaren ondorio,  
boterean jarraitu ahal izateko,  
estatuaren jardura zuritzeari  
ekin ziotenak, legearen  
onarpenera aukeratu zuten  
ordezkari gisa

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ginen helmugaren bila ustezko bide zuzenetik. Oinez. Lanabes arinez bidea irekitzen eman ditugu gure urte sasoikoenak. Gure bide zidorretatik landa, kubotaz eta garabi erraldoiez autobideak plantatu dizkigute zirkuitu itxiak egituratuz. Eskotean erositako beren auto azkarrez itzuli-mitzulika dabilta harro asko gu alboratzeko zereginetan asmatu ezinik eredu-garri. Restop lasaigarriz bete dute zirkuitua euren apertan hornitzaile. Bapo dabilta haurrak manexetan nola. Autonomia Estatutua deitzen diote guncari. Urtero antolatzen dute jai publiko bat, egunero pribatua dena.

## Abiatu

Albotik begiratzen jarraitzen dugu orube bilakatu dizkiguten lurra, eskuz eraikitako etxoletako biztanle behar-tuak. Ez gaude ezinduak, nahiz eta nire lagunmin batek esaten zidan bezala, lagun andana hiltzen ari zaigun ondorengoak preso utzita, zirkuitukoek eurearen mantenu lanek hala aginduta. Aitzurrek, palek eta karretilek estalperik gabeko eremuan herdoila bildu eta txatarre-rako egin dute. Lanabes berrien beharretan gaude, gure bidean goiti egin nahi badugu. Eta orain arte bezala, zirkuitukoak atzetik izango ditugu eraikitzaileak bailiran beren kubotak eta garabi erraldoiez gurea edertzen berena bailitza. Ez dio axola, bideak du garrantzia. ■